

Elkarrizketa
politikoak

ZORNOTZA



"Hilerriko gorpuzkien aurkikuntza dela eta, hainbat familia ipini da gugaz hartu-emanen identifikaziorako"

Zornotza • Gerra zibileko 51 gudariaren gorpuzkiak aurkitu zituzten Zornotzako hilerrian. Orain, Gogora Institutuagaz pertsona horiek identifikatzeko saiakera egiten dabiltzala azaldu du Ainhoa Salterain alkateak. Horrez gainera, 2024rako proiektuak azaldu ditu. • **2-3**

"Dena ez da libre mendian"



Kirola • Aritz Azkorbebeitia Etiketa Berdea egitasmoaren sustatzaileetariko bat da. Egitasmoak mendi lasterketetan ingurumena babesteko eta gizatasuna eta berdintasuna sustatzeko praktika ona jasotzen du bere dekalogoan. Dagoeneko 40 lasterketak bat egin dute ekimenagaz. • **26**



Aurrez aurre ezagutuko dituzte Otxandioko nagusien beharrianak

Otxandio • Profesional talde bat 80 urtetik gorako herritar denekin batuko da zer premia duten jakiteko. • **8**



Mallabiak mendi lasterketa berria izango du maiatzean

Kirola • Zazpi Pago elkarteak izen bereko lasterketa antolatu du maiatzaren 18rako. Herriko paisaia naturaletatik zehar, pistak ahalik eta gehien saihestu eta bidezidorretan murgilduko den proba da. • **27**



Iurretako Iturriotz baserria harririk harri mugituko dute

Iurretako • Santa Apolonian dagoen XVII. mendeko Iturriotz baserriaren kultur ondarea babesteko dute. • **11**



NEVERS IKASTETXEA

Konfiantzan hazi eta hezi



ATE IREKIAK

Urtarrilak 27

Zatuz gu ezagutzera!
10:00 - 13:00

📍 Bruno Mauricio Zabala Kalea, 6
48200 Durango, Bizkaia

🌐 neversikastetxea.com

☎ 946 81 09 46

📱 @neversikastetxea



Ainhoa Salterain Gandarias

Zornotzako alkatea

ZORNOTZA | 1970

“2024ko inbertsiorik handienetariko bat Urgozo kiroldegikoa izango da”

Inbertsio esanguratsuak egiteaz gainera, memoria historikoari lotuta Zornotzako Emakumeen Kartzelari buruzko dokumentala grabatzen dabilta

ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

Urgozo kiroldegia, Jauregizaharreko berrurbanizazioa eta Nafarroa Zentzoko obrak dira aurtengo hiri-gintzako inbertsio nagusiak Zornotzan. Egitasmo horiei buruz berba egiteaz gainera, Ainhoa Salterain alkateak bizikidetzari eta memoria historikoari buruzko galderei ere erantzun die.

Zelakoak izan dira lehenengo hile hauek alkate karguan?

Oso intentsoak. Ohore handia izan zen, lehenengo eta behin, alderdiaren proposamena jasotzea, eta baita hauteskundeak irabaztea eta gobernua osatzeko aukera izatea ere. Ohorez eta erantzukizunez hartu nuen ardura hori, eta ildo bi horiek konstante bat dira niretzat. **Zeintzuk dira 2024ko erronkak?**

Aurrekontuei lotuta, azaroaren 17an aurrekontua onartu aurretik, Agintaldi Plana onartu genuen. Plan horretan, legegaldi osorako ildo nagusiak agertzen dira. Programa batez aurkeztu ginen hauteskundeetara, eta ildo nagusiak berdinak dira: familiak, auzoak, jasangarritasuna, kultura eta gure nortasuna zein den, hurbiltasuna eta erantzukizuna kudeatzerakoan. Horiek dira gure sei lerro nagusiak eta aurrekontu planean txertatuta daude. Azkenean urteko aurrekontua kudeaketa tresna bat da.

Zeintzuk dira 2024ko aurrekontuen lerro nagusiak?

34 milioi euroko aurrekontua dugu 2024rako. Partaidetza prozesuetan eta aurrekontu parte hartzaileetan agertzen diren inbertsio batzuk sartu ditugu aurrekontuetan.

Bestalde, gobernu talde modura programa batez aurkeztu gara eta hor ere pausoak eman behar ditugu programa hori gauzatu ahal izateko. Inbertsioen artean, Urgozo kiroldegia, Jauregizaharreko urbanizazioa eta Nafarroa zentroa daude, besteak beste.

Zelan doaz Urgozo kiroldegiko obrak?

2024ko inbertsiorik handienetariko bat Urgozo kiroldegikoa izango da. Ez da Zornotza Saskibaloi taldearen eraikin bat izango bakarrik. Zornotzan kirol instalazioen beharrez dugu. Ixerbekoa oso zaharrituta dago. Hori ez da bertan behera geratuko eta hor ez dira etxebizitzak eraikiko. Baina berri eta gero beste kirol eta ekintza batzuk egiteko erabiliko da. Udabarri taldeak, esate baterako, hantxe entseatzeko du. Gure asmoa da Udabarri eta beste elkarte batzuen egunerokotasuna Urgozora eramatea. Izan ere, eraikin berriak erabilerara anitzeko gela bi egongo dira. Era berean, Zornotza Saskibaloi Taldea eta talde horretako umeak ere bertan entrenatuko dira, talde asko dituzte eta. Gainera, neguan azoka edo kontzerturen bat egin gura badugu orain frontoian egiten dugun legez, beste leku bat erabilgarri izatea da helburua. Zornotzak 20.000 biztanle ditu eta hainbat gauza antolatzen da ia astebururo. **Beste proiektu esanguratsu bat Jauregizaharreko urbanizazioa izango**

da. Zertan datza?

Jauregizaharreko urbanizazioa ekainean hastea espero dugu. Sei hileko iraupena izango du. Erdigunean plaza bat sortu gura dugu. Argiteria berriztuko dugu, kontainerrak aldatuko ditugu, lurzorua egokituko dugu... Jauregizahar irigarria eta egokitua izango da.

Nafarroa Zentroan ere aurrekusi dituzue obrak.

Nafarroa Zentroa faseka egin dugu eta beheko solairua geratzen zaigu. Solairu horretan, momentu honetan ile-apaindegia, podologoaren kontsulta, jubilatuei elkartearen egoitza eta taberna daude. Zerbitzuak berrantolatzeke aprobetxatuko dugu obra. Alde batean kanpoko enpresak egongo dira, lehenengo arreta hor egoteko. Eskuma aldean taberna eta egoitza egongo liriteke. Jubilatuek asko erabiltzen duten lekua da, eta oso erraz dago bertara joateko, herri erdian.

Ortu ludikoak sortzeko asmoa duzue. Zein da helburua?

Astepen ortu ludikoak sortzeko asmoa dugu. Gune horretan baserri bat dago eta bere teilatua konpondu behar dugu. Eraikin hori ortuen erdiko elementua izango litzateke. Aurten 310.000 euroko inbertsioa aurrekusten dugu. Arlo honetan hainbat gauza landuko dugu. Zornotzako Iraunkor elkarteagaz eta ekoizle batzuekin kontaktuan gaude. Jon Bastante ekoizlea prest dugu laguntzeko. Eurek badute lehen

sektorearen inguruko jakintza eta ortu hauek zelan antolatu euren pentsatu gura dugu. Ortuen helburua ez da bakarrik etxean jango ditugun ortuariak ekoiztea. Pertsona nagusientzat derrigortasun bat izatea bertara joateko, Astepera joan egin behar da eta. Gazteekin ere berdintzen da.

Autokarabana parking bat ere aurrekusi duzue. Non kokatuko litzateke?

Aspaldiko eskaera bat da. Autokarabanen parkinga urtero agertzen da aurrekontu parte hartzaileetan. Proiektu xume bat izango da. Tourragaz proba bat egin genuen eta Barnetegi aurrera eraman genuen. Kokapenari dagokionez, lekuri onena zein izan daitekeen aztertzen gabilta. Zornotzak hainbat leku ditu, baina eurentariko askok urak hartzeko arriskua dute. Larra-betuk eta Mungiak oso proiektu politak dituzte eta hori guzti hori aztertzen gabilta. Aurten martxan ipintzea espero dugu.

Alexandru Ionita gazte lemoarrari Zornotzan emaniko jipioekin lotuta, Bizkaiko Auzitegiak zazpi pertsonaren kontrako epaiketa hasi du aste honetan. Azken urteetan hainbat eraso salatu dute herrian. Gertaera horien aurrean, udala arduratuta dago?

Jakina, horrelako jarrerak asko arduratzen gaituzte. Bizikidetzari loturiko arazoak direla esango nuke. Ekainean hiru urte joango dira eraso baten harira lanketa bat egiten hasi ginela Zornotzako zazpi ikastetxeetan. Elkarlan hori martxan da eta momentu honetan gazteak eurak diagnostiko bat egiten

Emakumeen kartzelari buruzko dokumentala grabatzen gabilta. Gure historia da eta horren inguruan sakontzea aurrerapauso bat da

dabilta. Zein aisialdi gura duten, herrian eurentzat zer antolatzea gura duten eta horrelako galderak. Bizikidetzan eta balioetan sinesten dut. Pausoak eman ditugu eta prozesu horretan gazteek, guraso elkarteek eta ikastetxeek parte hartu dute. Horrelako proiektuak ez dira tangibleak, ez dute emaitza bat ematen egun batetik bestera, baina nabaritzen dira. Bizikidetzan lantzen duzunean eragina du. Horrek ez du esan gura horrelako barbaridaderik gertatuko ez denik, tamalez hori ezin delako bermatu. **Sorpresa handia izan zen Zornotzako hilerrian hiru hobi komunetan 51 pertsonen gorpuzkiak aurkitu izana.**

Herrian bazenuten horren berri?

Bai eta ez. Edadeko pertsonen esan izan duten gauza bat da. Egunero gurutzatzen naiz Javi Zabalagaz eta beti esan dit hor bazegoela zeozer. Euren tailer bat zuten hilerriaren parean, eta umetan hantxe jolasten ziren. Hobi komunak agertu diren belargune horretan lurra mugitu egiten zela esaten zuen. Aurreko legealdian, Luciano Martinez zinegotziak gai honen ardura hartu zuen. Memoria historikoari lotuta, 2023an hainbat liburu argitaratu zen.

Hainbeste denbora pasatuta hilerriko espazio hori errespetatu izanak izango du azalpena.

Karmelon emakumeen kartzela egon zen, eta odol bankua ere bai. Oso gauza arraroa da. Zornotzako hilerriara sartu eta eskuma aldean lurzoru bi ia hutsik daude. Arraroa da hilerria hazten joan ahala hor ezer ere egin ez izana. Lourdes Herrasti Aranzadiko arduradunak dioenez, beti dago arrazoiren bat. Lekuak errespetatzen direnean, zeozergaitik izaten da. Niretzat hunkigarria izan zen hobi komunitako gorpuen ordena ikustea. Aranzadiko arduradunek azaldu zuten, gizonezkoak ziren denak, batzuk, ospitaletik ekarri-

takoak, metralagaz edo zauriekin zeudelako. Zornotzako eta inguruetakoko basoetatik ekarri zituztenak bereiztu egiten dituzte. Ezkerraldean, frontean ibili zirenak agertu ziren. Lau txapa agertu dira, eta baita poteak ere.

Orain, gorpu horiek identifikatzeko momentua da. Baduzue fase horren berri?

Albiste entzun eta gero, familia ugari ipini da gugaz hartu-emanen identifikaziorako. Gai hori Gogora Institutuaren bitartez bideratzen gabilta.

Hilerriko ikerketak aurrera jarraitzen du?

Aranzadik hainbat eskaera egin digu hilerrian egiten dabilzan ikerketagaz jarraitzeko. Aldaketa horiek baliatuko ditugu dola perinatalari lotuta jaso ditugun eskaerei erantzuteko.

Eskaera horiei begira, zein erantzun emango duzue?

Aurten proiektu bat eskatuko dugu, eta gure konpromisoa da hilerrian leku bat ipintzea errespetua adierazteko eta familia hauen mina kontuan izateko.

Memoria historikoari lotuta, emakumeen kartzelari buruzko dokumentala grabatzen zabilzate.

Bai, dokumentala grabatzen gabilta. Ikus-entzunezko horren grabazio batean emakume batek



esaten zidan arraroa dela hilerriko hobi komunitan gizonak bakarrik agertu izana. Lekukotza horrek dioenez, bere amak esaten zuen Karmelo ospitaletik hainbat gurdikada haur eta emakume irteten zela. Baina ez dakigu non lurperatu zituzten. 2024an zehar dokumentala prest izatea espero dugu. Gure historia da eta gai horren inguruan sakontzea aurrerapauso bat dela uste dut.

Zornotzako auzoek zeintzuk beharri- zuzan dituzte?

Zornotzako aberastasunetariko bat auzoak dira. Hainbat auzo dago, baina lau nahiko handiak dira eta nahiko elkarte indartsuak dituzte. Etxano, Boroa, Euba eta San Migel. Lan ildo garrantzitsu bi ditugu. Bata auzoko jaiak berreskuratzea da. Uda honetan auzo guztietako jaietara joan gara. Ezin duzu imajinatu zenbat eskertzen duten hara joatea eta

babesa adieraztea. Horri lotuta, kultura auzoetara hurbiltzea. Etxanon eta Boroan txokoa dago, baina Euban eta San Migelen tabernak egon dira eta zarratu egin dituzte. Azken bi hauek auzoko topagunea ziren. Auzoetan ekin-tzak antolatzea da gure proposamena. Batez ere adineko pertsonentzat antolatzen diren gauzak etxera eraman behar dizkiezu. Horretarako, auzo elkarteekin elkarlanean lan egin behar dugu.



Okm: batzen gaituen distantzia

abantaila
guztiak
hemen >



Egin zaitez anbotokide!

30€
urtean!

> **anboto**
kide

Río de Oro elkarteak Karabana Solidarioaren kanpaina berria hasi du

DURANGALDEA • E.H./A.R.

Bueltan da Saharako errefuxiatuei laguntzeko Durangaldean egiten den egitasmo solidarioa. Río de Oro elkarteak martxan ipini du Karabana Solidarioaren kanpaina berria. Herritarrek bide bi izango dituzte dohaintzak egiteko. Bate-tik, eskualdeko ikastetxeetan eta supermerkatuetan ipiniko diren txokoetan elikagaiak utzita. Edo,

bestela, Bizum sistema bidez edo banku transferentzia bidez ekarpen ekonomikoak eginda. Azken hau dela eta, Río de Oro argitu du elikagaiak erostera bideratuko dituztela jasoriko funts guztiak. Kanpaina urtarrilaren 31ra arte egongo da martxan. Ekarpeneko ekonomikoetarako bideak honako hauek dira: Bizum (01955 kodea bilatuta) eta banku transferentzia.

Laboral Kutxaren kontu korronte honetan egin daitezke ekarpenak: ES9030350129111290034483

Elkarteak 24 tona laguntza humanitario bidali gura ditu Durangaldetik. Saharako gobernuarekin adostuta, honako produktu hauek bidaltzea lehenetsi dute: arroza, pasta, azukrea, atun latak, leka-leak, oliba olio, sardina latak eta konpresak.



Río de Oro eguneko janari bilketa bat. Artxiboko irudia.

Pentsiodunen mugimenduak sei urteko bidea egin du

Aurrerantzean ere aldarrikapenekin jarraituko dutela adierazi dute. Astelehenean hainbat herritan batu ziren

DURANGALDEA • E.H./A.R.

Durangaldeko pentsiodunen mugimendua sei urtean ibili da astelehenero-astelehenero, eguerdietan, pentsio duinengaitiko aldarrikapenak kalera-tzen. "Harro gaude bidezkoa den aberastasunaren banaketaren aldeko borroka egiteaz eta erakunde sozial eta sindikalekin partekatzeaz", esan dute. Eta

aurrerantzean ere bide horretan jarraituko dutela adierazi dute. Besteak beste, "1.080 euroko gutxieneko pentsioa" ezartzea gura dute, eta Eusko Jaurlaritzari dei egin diote pentsioei kopuru horretara heltzeko falta zaien zatia ipintzeko. Astelehenean, Elorri, Durango, Zaldibarren, Iurretan, Berrizen eta Zornotzan egin zituzten ekitaldiak.



Durango udaletxeko arkupeetan batu ziren ekitaldia eta luntxa egiteko.

Garaiko San Anton eguneko erremata tradizionalan aspaldiko diru kopururik handiena batu dute: 1.000 euro

GARAI • EKAITZ HERRERA

Errezil sagar bete otzara eta ardi esne botila 60 euroan; etxeko pastela eta kiwi bete saski 46 euroan. Eta txorizo sorta eta baba bete poltsa 40 euroan. Garain San Anton eguneko erremata tradizionala egin zuten eguaztenean, eta herritarrek lehian ibili ziren baserriko produktuak eskuratzeko, boz gora botariko prezioak gaintzen eta elkar zirikatzeko. Emaitza, honako hau: 1.000 euro

batu zituzten, azken urteotako diru kopururik handiena. Urtero legez, Lazaro Milikuak egin zituen erremata gidatzeko lanak. Garaitarra pozik azaldu zen enkantea amaiturikoan: "Giro polita egon da. Eguraldia lagun izan dugu eta enkante jendetsua izan da". Diruaren erdia Caritasi emango diote dohaintzan. Beste erdia elizako konponketak egiteko erabiliko dute. Errematak momentu dibertigarri ugari izan

zuen. Begi bistakoa izan zen herritarrek enkantera irtendako produktu batzuk eskuratzeko erakutsitako grina. Adibidez, lagun bi elkar zirikatzeko ibili ziren urdai zati bi eta dozena bat arrautza eskuratzeko lehian, tenis partida baten antzera. Etxean eginiko pasteekin eta Errezil sagarrekin ere, antzeko. Enkante tradizionala salda bero bana hartuta eta txalo zaparrada batez gain amaitu zuten.



Jende ugari batu zen Elizabarriko elizpean, errematan parte hartzeko.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2024ko urtarrilaren 19a
22. urtea - 964. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Hirukoa lehiaketak euskaraz jolasteko tarte saltsero eta dibertigarri bat eskaintzen du”

Gorka Madrazo Ortuzarrek eta Alazne Arando Guezalak Berbarok antolaturiko Hirukoa lehiaketa dinamizatuko dute gaur



makillajea behintzat prest izango dituzue?

Alazne Arando: Aurkezle lanetan egongo direnek baietz esango nuke, prest izango dituztela trajeak! **Izan ere, zuetariko bakoitzak zein betebeharrak izango du lehiaketan?**

A.A.: Ni lehiaketako jolasak eta galderak prestatzen ibili naiz. Inskripzioak kudeatzen ibili naiz, eta iluntze honetako lehiatan taldeei arreta eskaintzeaz eta puntuak banatzeaz arduratuko naiz.

Gorka Madrazo: Ni, ostera, Ilaski Serrano izango naiz! (barrez). Ez, ez, txantxa da. Ni neu izango naiz. Mirari Zugaza-artazagaz batera aurkeztuko dut lehiaketa. Denborak kontrolatzea eta lehiakideak urduritzea eta xaxatzea izango da gure lana.

Hirukoak bosgarren urtea du. Egongo da nobedaderik?

G.M.: Bai, joko berriak izango ditugu. Batzuk iazko edizioaren antzekoak izango dira. Beste batzuk, ostera, berriak. Esan dezakegu dibertigarri bezain gax datozela probak.

Proba gaxak prestatu dituzue, beraz.

A.A.: Bai. Batzuk gaxak izan daitezke. Denerik egongo da. Proba musikalak, ikusmenagaz jolasteko probak, abileziari loturiko probaren bat, idatzizkoak...

G.M.: Bai, idatzizkoak ere bai.

Beraz, EGako atariko proban fin moldatzen denak etekina atera ahalko dio proba horri!

Parte hartzeko grina handitzen doa urterik urtera?

A.A.: Bai, bai. Pike sanoa dago, gainera. Askok galdetu izan digute kalean ea aurtengo edizioa noiz eta zelan egingo zen. Jendea animatuta dabil. Iaz, adibidez, 18 talde izan genituen. Aurten muga bat ipini dugu. Gehienez ere 20

Probak berrituta datoz eta askotarikoak izango dira: musikalak, ikusmenari loturikoak, idatzizkoak eta abileziari loturikoak

taldek parte hartuko dute. Aurreko edizioa, adibidez, egundokoa izan zen. Oso indartsua.

Zein da zuen iritziz Hirukoak betetzen duen funtzioa?

G.M.: Esango nuke euskaraz jolasteko tarte dibertigarri eta saltsero bat eskaintzen duela. Gertukoa da, lagun artekoa, giro polita sortzen duena.

A.A.: Hirukoteka jokatzeko da, baina gainerako taldeekin har-

tu-eman egiteko ere balio du. Poteoan egon barik, gune dibertigarri bat sortu eta elkarregaz jolastea ahalbidetzen du. Gainera, jolastera etorri ez arren, herritarrek aukera dute ikusle lez etortzeko.

Zein mezu helaraziko zeniekete lehiakideei?

G.M.: Argi egoteko, inguruan gertatzen dabilenari adi begiratzeko. Boladan dauden azken kantak errepasatzeko, garai batekoak kontuan hartzeko. Berbaroko lantaldeak lan handia egin du probak prestatzen.

A.A.: Jolasteko grinagaz etortzeko esango nieke, gogotsu etortzeko. Beste kontu bat azkartasuna da, proba asko arin batean erantzutekoak dira eta. Bestalde, talde bakoitzak bere edaria ekarri behar du, ez da taberna zerbitzurik egongo eta. Lehiaketako momentu batean geldidunetxo bat egingo dugu, luntx txiki baterako.

Hirukoa oinarri duen mahai-jolasa kaleratu eta salgai ipintzea baino ez zaizue falta.

G.M.: Aizu, ba ez da batere ideia txarra! Diru laguntzak kontsultatu behar ditugu horrelakorik kaleratu dezakegun aztertzeko. Batek daki, Durangoko Azokarako proposa izan daiteke. Edo Olentzerori eta Mari Domingiri eskatzeko modukoa ere bai (barrez).

Badaezpadako galdera despistatuentzat. Gogoratu data, lekua eta ordua.

G.M.: Hirukoa lehiaketa, gaur, 19:30ean, Plateruena Kultur Aterpean. Lehiara ez datorrenak ikusle legez etortzeko aukera du.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Hirukoa lehiaketaren bosgarren edizioa jokatu da gaur Plateruena Kultur Aterpean, 19:30ean. Gorka Madrazo Ortuzar (Zaldibar, 1987) eta Alazne Arando Guezala (Elorrio,

1997) lehiaketa dinamizatuko lanetan ibiliko dira.

Telebista lehiaketen pareko saioa, baina kameretatik eta zuzeneko seinaleetatik urruti. Trajeak eta

Kolon-ondesteko minbiziaren prebentzio probak Durangon

Udalak eta Minbiziaren Aurkako Elkarteak probak egitera deitu dute. Kanpainak otsailaren 29ra arte iraungo du

DURANGO • AITOR RUIZ

Durango Udalak eta Minbiziaren Aurkako Elkarteak elkarlanean dabilten 50etik 69 urtera bitarteko biztanleek kolon-ondesteko prebentzio proba egin dezaten. Osakidetzak antolaturiko ekimena Durangon egingo

da, urtarrilean eta otsailen. Kanpainak otsailaren 29ra arte iraungo du. Informazioa Andragunean eta Otamotzenan jaso daiteke, eguaztenetan, 10:00etatik 14:00etara. Gaixotasuna goiz detektatzea gakoa dela diote adituek.



J. Ruiz alkateordea, Oihana Urraza (Minbiziaren Aurkako Elkarteak) eta M. Elkoroiribe alkatea.

Zazpi pertsona epaitzen hasi dira Alexandru Ionitari emandako jipoiekin lotuta

Akusatuak adinez nagusiak dira. "Hilketa saiakera" egotzita epaituak izaten ari dira



Epaiaketa Bizkaiko Lurralde Auzitegian egiten dabilta.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Alexandru Ionita gazte lemoarrari Zornotzan emandako jipoiekin lotuta, Bizkaiko Auzitegiak adi-

nez nagusi diren zazpi gazteren kontrako epaiketa hasi du asteon. Familiako iturriek hedabide honi esan diotenez, "hilketa saiakera"

leporatzen diete zazpiei. Astelehenean, biktimaren gurasoek deklaratu zuten. Familiako iturriek jakinarazi dutenez, Ionita "apurka-apurka" dabil aurrera egiten. "Ahotik jaten du eta berba batzuk esateko gai da. Momentu honetan Bilbon dago ingesatuta, epaiketa dela eta, nahiz eta errehabilitazio lanak Bartzelonan egiten dituen", jakinarazi dute. Gazte lemoarra 2021eko uztailearen 24tik 25era bitarteko gauean jipoitu zuten, Jauregibarrian. Ertzaintzak hamasei gazte atxilotu zituen hurrengo egunetan. Erdiak adingabeak ziren. Iaz, adin txikikoak ziren zortzi gazte epaitu zituzten. Orain, adinez nagusi diren zazpi akusatuak.



Aurreko edizio bateko argazkia.

Abadiñok Lasterbidean lasterketaren X. edizioa hartuko du ekainean

Ekainaren 15ean egingo dute. Bezperan, "sorpresaz beteriko ikuskizun berezia" egongo da

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Lasterbidean egitasmoak, euskal preso eta iheslarien aldeko ekimenak, Abadiñon lur hartuko du ekainaren 14an eta 15ean. Aurten goa edizio berezia izango da, lasterketak bere hamargarren urteurrena betetzeaz gainera egun biko egitaraua izango baitu lehenengoz. Antolakuntza lanetan dabilzan ki-deek jakinarazi dutenez, lasterketa eguna ekainaren 15a izango da. "Baina 14an, bezperan, ikuskizun berezi bat egongo da. Oraindino ezin ditugu ikuskizunaren xehe-

tasunak eman, baina aurreratu dezakegu sorpresak egongo direla", azaldu dute.

Martxotik ekainera Lasterbideani lotutako hainbat ekintza egongo dira Durangaldean

Ekainaren 15eko lasterketa hamar kilometrokoa izango da. Eta aurten, nobedade modura, beste kirol proba batzuk ere egingo di-

tuzte. Umeei begirako lasterketa txikia batetik, eta oinez egiteko moduko martxa bestetik. "Dena dela, Abadiñora mugatu barik, Lasterbideani loturiko egitasmo ugari egingo da Durangaldean. Izan ere, eskualdeko herritarrek parte hartu ezik hau egitea ez zen posible izango", esan dute antolatzaileek. Aurreratu dutenez, martxotik ekainera izango dira ekintzok. Lehenengo hitzordua finkatua dute jada. Abadiñoko Errota Kultur Etxean bertso saioa egingo dute, martxoaren 16an.

Abadiñarrek herriko argiztapena hobetzea aukeratu dute

Herriko hainbat eremutako argiztapena hobetzea izan da aurrekontu parte hartzaileetako proiekturik bozkatuena

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoko bizilagunek aukeratu dituzte 2024ko aurrekontu parte hartzaileetako proiektuak. Udaltik jakinarazi dutenez, hauek dira botorik gehien jaso duten hiru proposamenak: udalerriko hainbat eremutako argiak hobetzea (50.000 euro), oinezkoentzako pasaguneak identifikatzeko argi-sentsoreak instalatzea (50.000 euro), eta umeentzako guneen segurtasuna eta perimetroa hobetzea (30.000 euro). Guztira, 412

lagunek parte hartu dute proiektu hauen aukeraketan, eta horietatik %60 emakumeak izan dira.

"Botorik gehien jaso duten hiru proiektuak ditugu mahai gainean, eta horien artean banatuko da aurrekontu parte hartzaileetarako aurreikusitako partida. Gainerako proposamenak ere kontuan hartuko ditugu, herritarrek eskatzen dituzten hobekuntzei buruzko argibideak ematen dizkigutelako", azaldu du Mikel Urrutia alkateak.



Zelaietako Ferialekuko argazkia.

Atxondoko Udalak behin-behinean moztu du eskola inguruko bidea

San Pedro elizako eta eskola inguruko bidea kudeatzeko modurik egokiena zein den aztertzen dabil udala



Joan zen astetik eremu hori itxita dago.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak joan zen barikuan prentsa ohar baten bidez jakinarazi zuenez, eskola inguruko bidea behin-behinean moztu dute, San Pedro eliza eta eskola inguruetan sortu diren arazoak direla eta. Eremu horretan, espaloia harrizkoa da zati batean, eta asfaltozkoa beste batean. Atxondoko Udaletik azaldu dutenez, harrizko eremua oinezkoentzat izan arren, jendeak bertan aparkatzen du eta eremu hori "ez da ondo erabiltzen. Orain arte espazio hori ez da erregulatu, eta hainbat arazo sortu da hori dela eta. Auzokideekin eta eskola komunitateagaz berba egiten gabiltza eremu horren erabilerarik egokiena zein izan daitekeen erabakitzeke", azaldu du Eneritz Agirre Atxondoko alkateak.

Bestalde, eremu horretan trafikoa eta aparkalekuak zelan kudeatu aztertzen dabilzala adierazi dute.

Udalak herri ekimena eta elkarlana goraipatu ditu Iturrin eginiko erakusketetan

Erakusketak herriko "aberastasun kulturalaren isla" dira

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak 2023an Iturri Kultur Etxean eginiko erakusketen balorazioa egin du, eta Iturriko erakusketa gelan egin ziren ekimenei aipamen berezia egin gura izan die. "Iturrin eginiko erakusketak herrian dagoen aberastasun kulturalaren isla dira", azaldu dute. Gainera, udalak goraipatu eta eskertu gura izan ditu herri ekimena eta elkarleen elkarlana.

2023a Elorrioko Institutuaren 25. promozioa ospatzeko erakusketagaz zabaldu zuten, eta horrelaxe amaitu zuten urtea ere, beste urteurren bat ospatuta. Filatelia eta Numismatika elkar-

teko bildumazaleek, Correosegaz batera, postal eta zigilu bereziak sortu zituzte Berrio-Otxoa abesbatzaren 50. urteurrena ospatzeko.

Iturri kultur etxean, erakusketekin hasi eta amaitu zuten 2023a

Tartean, hainbat erakusketa egon zen: Enrique Illaramendiren erakusketa, Satur Peña eta Isabel Aliagarena, eta Erdella Mendizale Elkarteak eginiko argazki erakusketa, besteak beste.

BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA
IKASTOLA 

MATRIKULAZIO EPEA
otsailaren 7tik 23ra

**ATEAK ZABALIK
JARDUNALDIA,**
urtarrilaren 27an
goizean zehar

ESKAINTZA:
0 urtetik 18 urtera bitarteko
hezkuntza eskaintza

HELBURUA:
Ikasle eleanitz, kritiko eta
euskaldunak

JANTOKIA:
Bertokoa, sasoikoa eta
produktu ekologikoak



www.kurutziagaikastola.eus



Otxandioko nagusien beharrianak jakiteko, profesional talde bat eurekin elkarrizketak egiten hasi da

Otxandion bizi diren 80 urtetik gorako 101 nagusiekin aurrez aurreko egongo dira. Lehenengo txandan 13 adinekogaz batu dira



Amaiur Magunazelaia, Inge Landaluze, Jaione Uribe, Leire Amuriza, Amaia Oianguren eta Silvia Auñon. OTXANDIOKO UDALA

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandion 80 urte baino gehiago dituzten 101 nagusi daude eta eurekin banan-banan batzeko dinamikari ekin dio udalak. Horretarako, gizarte eta osasun arloko profesional talde bat osatu dute. Helburua nagusien beharrianak jakitea da, euren egoera hobetzeko zer egin daitekeen jakiteko. "Pandemian

ikusitako bakardadean bizi den jendea dagoela, ikusten ez zirenean errealitate batzuk bistaratu ziren eta eurekin batzeko premia azaleratu zen. Zer behar duten jakin gura dugu, zer zaintza sare duen bakoitzak eta egunerokotasunean zeintzuk zailtasun dituzten", azaldu du taldeko kidea den Inge Landaluzek.

Landaluze gizarte langilea da formakuntzaz, eta gaur egun Aretxabaletako nagusien egoitzako zuzendaria da. Beragaz batera, Amaiur Magunazelaia Otxandioko egoitzako zuzendariak, Jaione Uribe eta Leire Amuriza erizaintzako laguntzaileak, Amaia Oianguren gizarte hezitzaileak eta Silvia Auñon erizainak osatzen dute

profesionalen taldea. Orain arte 13 lagunekin egon dira, zerrendako nagusienekin. Lehenengo kontaktua gutun baten bitartez egiten dute, euren asmoen berri emateko. Gero, telefonoz deitzen diete. Otsailaren erdirako beste 25egaz egoteko asmoa dute. Elkarrizketa guztiak "ahalik eta lasterren" egin gura dituzte, adin

horietan nagusien errealitatea hile gutxiren barruan aldatu egin daitekeelako. 80 urtetik behera dituzten eta bakarrik bizi diren adineko batzuekin ere batu gura dute, "beste ikuspuntu bat" eman dezaketelako: non ikusten duten euren burua urte batzuk barru, zeintzuk espektatiba dituzten...

Orain arte oso harrera ona jaso dute orokorrean. "Pare batek ez du elkarrizketarik gura izan, baina beste denak oso eskertuta agertu dira eta ekimena oso ondo hartu dute", dio Landaluzek.

Ezezagutza, puntu komuna

Elkarrizketa sorta bakoitzaren ondoren elkartu egingo dira, informazioa batu eta denen artean balorazio bat egiteko. Lehenengo batzarra astelehenean egin zuten. Oraindik goizegi da Otxandioko nagusien egoeraren eta beharrianen erradiografia zehatz bat egiteko, baina puntu komun batzuk azaleratzen joan dira elkarrizketak egin ahala. Erakundeek nagusiei begira dituzten programen ezezagutza da eurretatik bat. "Konturatu gara jendeak ez duela ezezagutzen zerbitzu publikoetan dauden aukerak: etxerik etxeko laguntza, diru laguntzak... Egon garen 13 nagusietatik batek baino ez dauka eginda mendekotasunaren balorazioa. Oraingo ez dute premia hori ikusten, euren kabuz moldatzen direlako", esan du Landaluzek. Beste puntu komun bat bakardadea da. "Nagusi batzuk apur bat bakarrik sentitzen direla esan digute", nabarmendu du.

Lehiaketara publikora aterako dute Errekondo jatetxearen kudeaketa

Aurreko arduradunek kontratua etetea erabaki dute eta Mañariko jatetxea itxita dago iazko urte amaieratik

MAÑARIA • J.D.

2021eko urritik Mañariko Errekondo jatetxearen ardura zutenek kontratua etetea erabaki dute. Esleipena lau urterakoa zen eta urte bi iraun dute. Ondorioz, Mañariko Udalak berriro lehiaketara aterako du jatetxea-

ren kudeaketa. Datorren asteko barikuan egingo duten udalbatzarrean onartuko dute baldintza-agiria, eta horren ondoren aterako dute lizitazioa. 2017tik hona hainbat bider atera dute jatetxearen kudeaketa lehiaketara.



Errekondo jatetxearen sarrera.

Plazak beteta, itxarote zerrenda dago Mallabiko biodantza ikastaroan

MALLABIA • J.D.

Mallabiko Nahikari elkarteak antolatutako biodantza ikastaroa asteon hasi dute eta, urtero legez, arrakastatsua izaten ari da. Plaza guztiak beteta daude, 17 guztira, eta lau laguneko itxarote zerrenda bat ere badute. Itxarote zerrendan daudenei tokia egiten ahaleginduko direla azaldu dute elkarteak. Klaseak hamabost egunerik behin dira, Kontzejuzarrean. Nahikaririk antolatutako beste ekimen batzuekin ere oso harrera ona izaten dute; esaterako, *mindfulness* ikastaroak. Iaz plaza guztiak bete zituzten eta 27 lagunek parte hartu zuten. Urtean zehar beste hainbat ekimen ere antolatzen dute; film laburren emanaldiak, antzerkia, eta abar.

Izurtzako Herriko Taberna bikote mistoen frontenis txapelketa prestatzen dabil

Giroa sortzea eta frontoiari erabilera ematea gura dute



Izurtzako pilotalekua herriko plazan dago.

IZURTZA • J.D.

Iaz Izurtzako Herriko Taberna berriro zabandu zutenean, bertako arduradunek aurreratu zuten urtean zehar ekintzak antolatzeko asmoa zutela. Bada, laster helduko da lehenengoa; bikote

mistoen frontenis txapelketa prestatzen dabiltzala iragarri dute. Horrela, herrian giroa sortu eta pilotalekuari erabilera eman gura diote. Bikote irabazleak Herriko Tabernan gastatzeko bonu bat irabaziko du.



Bertakok pieza guztiak konpondu eta ordezkatzeko dituzte, igogailuaren bizitza erabilgarria iritsi arte. BERTAKO

Bertako: igogailuetan gertukoa eta berezia

Bertako enpresak igogailuen instalazio- eta mantentze-lanak egiten ditu, Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan. Duela 9 urtetik ari da zeregin horretan, enpresa modura. Dena dela, lantaldeak aurretik dihardu sektorean. Esperientzia handiko taldea da

Bertakok 2.700 igogailu baino gehiagoren mantentze-lanak kudeatzen ditu Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Gehienbat, Bertakok igogailu marka guztietako mantentze-lanak egiten ditu. Eta pieza guztiak konpondu edo ordezkatzeko dituzte, igogailuaren bizitza erabilgarria amaitu arte.

Zerbitzu gardena

"Gure enpresa berezia da, sektoreko beste enpresa batzuekiko ezberdina", dio Bertakoko Iban Sanchezek, enpresako zuzendari komertzialak. "Bezeroari bideratutako enpresa da Bertako. Zerbitzu gardena eskaintzen dio jardueraren erdigunean dagoen bezeroari", dio; gardentasuna eskaintzen nahi du, "berez opakoa" den igogailuen sektorean. Horregatik, sorreran, sektorea ondo aztertu ostean, gustuko ez zituztenak albo atera utzi eta zerbitzuak beti bezeroari, herritarrei, etxebizitzakomunitatei, eskaintzen hasi ziren.

24 orduko benetako zerbitzua

Marka askotariko igogailuen mantentze-lanak –batik bat–; igogailuen instalazioa; edota zaharkituta dauden igogailuen ordez berriak jartzea. Horiek dira Bertakok egiten dituen lanak eta eskaintzen

dituen zerbitzuak. Eta hori guztia ustekabeko konponketa lanei uneoroko erantzuna emanda.

Bertakok bezeroekin –etxebizitzakomunitateekin– sinatzen dituen kontratuetan, "24 orduko benetako mantentze-zerbitzuak" eskaintzen ditu, urteko 365 egunetan. "Iraunkortasun klausulak edota bestelako zigor klausulak ezarri barik". Hau ez da ohikoa sektorean, Iban Sanchezek ustez. "Beste enpresa batzuek 24 orduko mantentze-zerbitzuak eskaintzen baina, gero, benetan ez dute 24 orduetan zerbitzua ematen. Guk benetako 24 orduko zerbitzua eskaintzen dugu; izan asteburu edo ordu txiki". Horregatik dira Bertakoren bereizgarriak "gertutasuna, gardentasuna eta bezeroarekiko konpromisoa".

Sorreran enpresa txiki izatetik bere jardun eremuan enpresa esanguratsua izatera pasatu da Bertako. 40 langilez osatutako lantaldea du Bertakok.

Prezioaren garrantzia

Prezioa da Bertakoren beste bereizgarri bat. Enpresa lehiakorra da, alde horretatik ere. Esaterako, orotariko zerbitzua eskaintzen duen enpresa batek BEZik gabe "150 eta 250 euro bitartean kobra zezakeen

hileko gu hasi ginenean, duela 9 urte. Eta gu zerbitzu hori 100-115 eurotan eskaintzen hasi ginen. Eta gaur da eguna galtzen ditugun bezero gutxiak eskaintzen dutena zerbitzu hori 65-75 eurotan". Sanchezek dio konpetentziako enpresek leporatu ziotela sorreran prezioak "botatzea" eta gaur dela eguna Bertakoren aurretik eskaintzen zuten prezioaren erdian dabilzana.

Euskarari garrantzia

Enpresa euskalduna eta euskaltzalea da Bertako. Ahalik eta zerbitzu gehienak euskaraz eskaintzen ditu. "Edozelan ere, onartzen dugu gure teknikari guztiak ez direla euskal hiztunak; batzuk badira; beste batzuk ez. Baina euskararekin konprometituta gaude eta ahal dugun zerbitzu gehienak euskaraz eskaintzen ditugu. Adibide bat jartzearen, Tuteran aurrekontuak eta fakturak euskaraz eta gaztelaniaz egiten ditugu". Beste konpromiso batzuk ere baditu euskararekiko: Korrikaren babesle izatea edota euskarazko tokiko hedabideetan publizitatea egitea.

Gizartearekiko erantzukizuna

Euskararekiko ez ezik, bertako eta gertuko beste jarduerak batzuekiko



Bertako enpresak igogailuen mantentze-lanak egiten ditu. BERTAKO

Aplikazioa, bezeroen zerbitzura

Bertako enpresak gaur egungo teknologiak darabiltza, eskaintzen duen zerbitzua eraginkorra izan dadin.



Bertako aplikazioa. BERTAKO

Bertakok eskuko telefonoetan erabiltzeko aplikazio bat ere badu. Honako hau ere bezeroei begira. Bezeroaren eta Bertakoren arteko

harremanetarako ez ezik, Bertakoko bezeroak beste gertuko gremio batzuekin harremanetan jartzeko ere balio du aplikazioak. "Esaterako, etxebizitzakomunitateko arduradunak arazo bat baldin badauka eta igeltsero, argiketari, arotz, iturgin edo bestelako gremioren baten premia badu, aplikazioak ahalbidetzen du haren inguruan jarduten duten gremio horiekin harremanetan jartzea", dio Sanchezek.

Lehentasunezko tratua

Hartara, bezeroei zerbitzu ona eskaintzeaz gain, tokiko negozioei ere laguntzen die. Sanchezek esanetan, "larrialdi egoeretan dauden eta momentu batean konponbide azkarra behar duten herritarrei zerbitzua eskaintzen zaie, baina ez larrialdi prezioen truke".

Lehentasunezko tratua eskaintzen diete gremioek herritarrei, Bertakoren aplikazio horren bidez.

ere badu erantzukizuna Bertakok, kirolaren edo kulturaren alorretan, esaterako. Tokikom, Arrasate Musikal, Hondarribia Arraun Taldea, Gaztedi Rugby eta Iker Vicente babesten ditu, besteak beste. Horretaz gain, emakumearen parte hartzea kirolean eta kirol egokitua sustatzen duten erakundeak ere babesten ditu, diruz lagunduz. "Halako erakundeen atzean dauden pertsonak, orokorrean, pertsona inplikatuak izan ohi dira, diru aldetik ez horren aberats direnak, nahiz eta beste aberastasun batzuk izan. Haien ondoan egotea gustuko dugu eta halako proiektuak diruz laguntzen ditugu", dio Iban Sanchezek.

Bertakoren zuzendari komertzialaren ustez, gainera, erantzukizun

horrek Bertakoren marka indartzen laguntzen du. "Bertakoko bezeroa gure bezero izateaz harro egon dadila nahi dugu; zerbitzu ona eskaintzeaz gain eta haren igogailua matxuratzen den bakoitzean azkar erantzuten duen enpresa izateaz gain, beste balio batzuk, harekin bat datozenak, dituen enpresa garelako ikustea".

Informazio gehiagorako

- Araba 945 712 822
 - Bizkaia 946 523 935
 - Gipuzkoa 943 903 450
 - Nafarroa 848 870 917
- www.bertako.eus


anboto
kide

Anbotokideen
txokoa


URTARRILEKO ZOZKETAK



Ali baba eta 40 lapurrak umeen antzerkirako sarrera bikoitza. Urtarrilaren 28an, Arriolan.



Moor Krad dantza ikuskizunerako sarrera bikoitza. Urtarrilaren 27an, Berrizko Kultur Etxean.



Zeozertan dabil baina ez dakit zertan antzerkirako sarrera bikoitza. Urtarrilaren 27an, San Agustin Kulturgunean.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

'Familia sarekada' ikuskizuna: Mireia Villalta Barrueta

'Andereño' ikuskizuna: Jon Badiola Totorikaguena

Gosaria Xiberun: Humberto Amantegi Agirrebeitia


Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaituz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Eskolako jolastokiko proiektuari ekarpenak egiteko aukera dago Zaldibarren

Formularioa betetzera animatu dituzte herritarrek. 'zaldibar.eus' webguneako loturan sartuta proposamenak egiteko aukera dagoela azaldu du Zaldibarko Udalak



Formularioa beteta ekarpenak jasotzen dabilta. 'Zaldibar.eus' webgunean topatu daiteke, edo udalaren sare sozialetan.

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Urteak dira Zaldibarko hezkuntza komunitate osoa jolastokiaren eraldaketan lanean dabilela. Proiektu pedagogiko parte hartzaile eta sakon bat landu zuten, bertan eraldaketaren oinarriak zehaztuz. Orduetik, Amesten Dugun Jolastokia taldea proiektu hori bultzatzen aritu da. Zaldibarko Udalarentzat ere "lehentasun" bat da eskolako jolastokiaren eraldaketa proiektua martxan ipintzea. ELE arkitektura estudioagaz hasi da lantzen proiektua udala. Iazko

E. Azpitarte: "Hezkuntza komunitatearen iritzia kontuan hartzea oso garrantzitsua da guretzat"

abenduaren 18an lehenengo ideia aurkeztu zieten herritarrei, eta proposamenak egiteko aukera izan zuten. Orain, proposamen gehiago jasotzeko asmoz, Internet bidezko galdetegia prestatu du

udalak. "Gobernu taldearen ustez, eskolako jolastokiaren eraberritzea proiektu estrategiko bat da, Zaldibarko umeen hezkuntzan garrantzitsua delako. Aurrerapausoak eman gura ditugu eta hezkuntza komunitatearen iritzia kontuan hartzea oso garrantzitsua da guretzat", azaldu du Eneritz Azpitarte alkateak. Haurrek, gurasoek eta hezkuntza komunitateak urteak daramatzate proiektua lantzen eta Amesten Dugun Jolastokia taldeak bultzaturiko proiektua martxan ipintzea lortu dute.

Palestinaren aldeko argazki herritarra aterako dute Berrizen

Zapatu eguerdian aterako dute argazki herritarra, 13:00etan, Berrizko Olakueta plazan.

BERRIZ • AITOR RUIZ

Berrizko Giza Eskubideen Aldeko Taldeak egin du deialdia, *Genozidioa gelditu* lelopean. Zapatu eguerdian aterako dute argazki herritarra, 13:00etan, Berrizko Olakueta plazan.

Urte amaieran ere Palestinaren aldeko ekitaldi bat egin zuten Berrizko gizarte zibileko hainbat erakunde eta elkartetik. Egun hartan manifestu bat irakurri zuten erasoak bertan behera uzteko eskatzeko. Ekitaldian, bonbardaketak islatzeko *performance* bat ere egin zuten. Palestinari elkartzasuna erakusteko, hainbat ekimen egin zen Euskal Herriko zenbait tokitan; Otxandion herri argazkia, adibidez.



Abenduaren 31n Berrizen egindako Palestinaren aldeko ekitaldia

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Industria jardueraren garapenak eta kultur ondareak elkarregaz egingo dute bidea Iurretako Santa Apolonia auzoan. Enpresek espazio berriak behar dituzte euren jarduera aurrera eramateko eta instalazioak hobetzeko, eta beharrian horri erantzuteko hasi ziren Santa Apoloniako industria lurzorua urbanizatzen uztailean, 3,27 milioi euroko aurrekontuagaz. Santa Apolonia aldi baterako enpresa elkarteak garatuko duen proiektu horren barruan, XVII. mendeko Iturriotz baserria 50 metro mugituko dute; harririk harri eroango dute Iurretako Udalaren titulartasuna izango duen lursailera. Modu horretan, baserriak duen kultur eta ondare balioa babesteko dute. Are gehiago, baserriaren jatorrizko izaera agerian ipiniko dute, Bizkaiko Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuak eginiko azterketari jarraituta, udalak eskaturiko moduan. "Argi genuen XVII. mendeko baserria mantendu behar genuela, ahal genuen neurrian", adierazi du Iñaki Totorikaguena alkateak.

Baserri errenazentista

Iturriotz baserria 1610ean eraiki zuten, Ibaizabal errekararen ertzean, haren izena hartu zuen iturburutik gertu. Gaur egun, trenbidea eta

industrialdea ditu inguruan. Ataridun familia bakarreko baserri errenazentista da, eta Bizkaiko baserriaren jatorrizko ereduaren ondorio zuzena. Hala ere, urte hauetan guztietan hainbat aldaera izan du. Santa Apolonia ermitatik 300 bat metrora altxaturiko baserria familia biren etxe bihurtu zen 1700. urte inguruan. Bizilekua berregituratu zuten eta litekeena da leiho-bao berriak zabaldu izana eta baserriaren kanpoko irudia aldatu izana. Hala jaso du Ondarearen Zerbitzuak. XIX. eta XX. mendeetan hainbat eranskin gehitu zuten.

Salbuespeneko neurri modura mugituko dute Iturriotz. Kultura Ondarearen zerbitzuko Alberto Santanak dioenez, "baserriaren egoera hobetuko da, eta, eraikina desitxuratu duten erreforma guztiez askatuta, abandonu egoeraren ondorioz hondatuta dagoen baserria saneatuko dute". Baserriaren aurrealdeko zeharkako bi hormarteetako elementuetan dago baliorik aipagarriena, bizitzeko erabili izan zen espazioan. Bada, horri balioa ematea eta baserriaren jatorrizko izaera nabarmentzea dute helburu egin beharreko lanekin. Inguruan aisialdigune bat egokituko dute, eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko zazpi aparkaleku publiko egingo dituzte.

Iturriotz baserria harririk harri mugituko dute duen kultur ondarea babesteko

Iurretako Udalak eskatuta, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuak eginiko azterketari jarraituta baserriaren jatorrizko izaera agerian ipiniko dute



Iturriotz baserria hondatuta dago gaur egun, abandonu egoeraren eraginez.

Zaldaik Iurretako Mendi Astea hasiko du datorren astean

Basatzen bizikleta martxa solidarioa hilaren 27an egingo dute

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Zaldai mendi taldeak antolatuta, Iurretako VII. Mendi Astea egingo dute urtarrilaren 23tik 28ra. Mendia herrira hurbiltzea helburu dutela, ikus-entzunekoak eta berbaldiak prestatu dituzte, Eñaut Aiartzaguena, Mikel Bringas eta Joseba Iztueta gonbidatuta. Bestalde, urtarrilaren 27rako Basatzen Iurretako VII. Mendi Bizikleta

Martxa eta Gallandara frontalekin irteera antolatu dituzte. Bizikleta martxa solidarioa Askondon irtengo da, 10:00etan, eta izen emateagaz lorturiko dirua Angelman Sindromea elkarteari emango diote. Aurretik izena ematea (www.kirolprobak.com) 8 euro da; egunean bertan, 12 euro. Izena ematen duten lehenengo 150 lagunek buff bana jasoko dute.



Bizikleta martxako ibilbideak 28 kilometro ditu.



Gure ikasleen ahotan

“Irakasle eta ikasleen arteko hurbiltasuna nabarmenduko nuke”



Izen-abizenak: **NAGORE ARRAZOLA ARENAL**
Herria: **Durango**
Adina: **20 urte**
Ikasketak: **Batxilergora arte San Jose Jesuitak Ikastetxean**
Gradua: **Industria Diseinu eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza**
Zaletasunak: **Lagunekin egotea, familiarekin bidaiatzea eta eskubaloia**

Industria diseinu eta produktu garapeneko Ingeniaritza graduko 3. mailan zaude: zergatik aukeratu zenuen gradu hau eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

Betidanik gustatu zaizkit teknologia arloko ikasketak, baita marrazketa ere. EHU-n eskaintzen ez zuten, eta Mondragon Unibertsitateko metodologiak oso iritzi onak entzunda nituen, Arrasaten izena ematea erabaki nuen.

Nolakoa izan da orain arte bizitako esperientzia?

Batxilergoan inoiz kontuan hartu ez ditudan gaiak buruz ikasi dit unibertsitatean. Izan ere, diseinuaren eta ingeniartzaren alderdi orokor asko lantzeaz gain, produkzioaren eta proiektu horiek bizitza errealean islatzen ere ikasten da.

Zer metodologia erabiltzen duzue, nolakoa da?

Irakasle eta ikasleen arteko hurbiltasuna nabarmendu beharra dago. Azterketa eta proiektuen bidez ikasgai desberdinetako alderdiak ikasteaz gain, ikasketak horiek guztiak amaierako proiektu batean (PBL) aplikatzen ditugu graduko sei hileko bakoitzaren amaieran. Ikasketak horiek zertarako balio duten ikusteko eta bizitza errealeko egoeretan erabiltzen jakiteko modu bat da.

Unibertsitateak zer da gehien gustatzen zaizuna? Badago ezer hobetzeko zure ustez?

Alde positiboetako bat Euskadi osoko jende ugari elkartzen gara da. Eta Arrasaten euskara eta bertako kultura bultzatzen eta indartzen ditugu, beste inon baino askoz gehiago. Garraio publikoak hobetuko nituzke, zalantzarik gabe. Oso autobus gutxi daude Bizkaitik, joateko zein itzultzeko, eta autobus-geltokia unibertsitatearen inguruan dago. Hobetu beharreko alderdiak dela uste dut, ikasle bizkaitar gehienok ez baitugu garraio publikoa erabiltzen. Hala ere, Unibertsitateko autobus-geltokiaren maiztasuna eta hurbiltasuna hobetzeak ikasle batzuek metodo hori hautatzea eragingo luke.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, DUAL eredu. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu?

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko komunikazio bekadun bezala nago Dual eredu. Orokorrean, Unibertsitateko web orria eta plataforma digitalari buruz ikasten ari naiz eta diseinuko proposamenak garatzen ditut. Horrez gain, Unibertsitatean zehar erabiltzen diren diseinu grafikoak komunikatzen ari naiz euskarri grafikoak diseinatuz.

Zer nolako ekarpena egiten duzu eredu dualak?

Aurten alde handia nabaritu dut gainerako ikasurteekin alderatuta. Ez dut lehen bezain besteko denborarik, baina hobeto antolatzen lagundu nau, eta gauza berriak ikasi ditut. Azken finean, enpresa batean programa dualaren parte izatea edozein ikasle ikasteko eta garatzeko aukera paregabea dela uste dut.

Durangaldeko lau sukaldari ETBko Sukaldarien Liga saioan

Eskualdeko lau kideak Euskal Herriko sukaldaririk onenaren titulua eskuratzeko lehiatuko dira



Ezkerretik hasita, Gorane Gorospe, Iñaki Uribe, Nerea Lerin eta Karmele Elexpe.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Euskal Telebistak *Sukaldarien Liga* talent show gastronomikoa estreinatuko du asteon. Euskal Herriko 50 sukaldari profesional zein amateur sukaldaririk onenaren titulua eskuratzeko lehiatuko dira. Tartean, Durangaldeko lau: Saltsan Katerin etxeko Iñaki Uribe, Gozatu gozotegiko Karmele Elexpe, Gorane Gorospe antzerki irakasle durangarra eta Nerea Lerin ostalari eta supermerkatuko langile zornotzarra. Telebista saioa urtarrilaren 16an estreinatu zuten, ETBko lehenengo katean, 22:15ean. Lehiaketa Ainhua Etxebarria aurkezle ondarrorak gidatzen du, eta gastronomian adituak diren Javi Rivero, Maider Larrañaga eta Aitzol Zugasti aritzen dira epaile lanetan.

Politikan

Carlos García
Fernández
PP



DURANGOBUS

Durangoko gure hiribilduak eta durangarrek pertsonen bizitzaren benetako beharriaz erantzuneko dieten zerbitzu publikoak behar dituzte, eta gabezia garrantzitsu bat udal hiri-garraiorik eza da, izan ere ez daukagu tamainaz eta hedaduraz antzekoak diren edo txikiagoak diren Bizkaiko beste udalerririk askok dutena.

Duela urte askotatik dago eztabaida hori Durangon, eta bultzada bat emateko garaia iritsi da, guztiontzat hain beharrezkoa den garraio-zerbitzu hori errealitate izan dadin, bereziki adinekoentzat.

2024ko aurrekontuetan Durangobus aurreproiektuan inbertsio bat egitea proposatu dugu

Hori dela eta, 2024ko aurrekontuetan Durangobus aurreproiektuan inbertsio bat egitea proposatu dugu, helburu honekin:

- Durangoko Udalaren hiri-autobusaren zerbitzuaren aurreproiektua prestatzea.

- Herritarrek parte hartzeko prozesua, ibilbideak, geralekuak, maiztasunak eta ibilgailuak zehazteko.

- Beste administrazio batzuekin finantzatzea, batez ere Foru Aldundiarekin eta Europako funtsekin.

- Iurretako eta Abadiñoko udalekin hitzarmena negoziatzea.

Modu honetan, beharrezkoa den udal aurrekontu osoaren zenbatekoa erabakiko dugu, eta guztion lankidetzarekin eta babesarekin batera 2024-2025ean Durangon udal autobusa izango dugula bermatuko dugu, garraioa, trafikoa, ingurumena eta, batez ere, guztion bizi-kalitatea hobetuko dituen.

Durangaldea asteon

Fermin Muguruzaren 'Bidasoa' dokumentala emango dute, gaur, Errotan

ABADIÑO | Isiotu Kultur Elkarteak eta Abadiñoako Udalak Fermin Muguruzaren *Bidasoa* dokumentalaren emanaldia antolatu dute. Ikus-entzunezkoak Gipuzkoa eta Lapurdi arteko mugan migratzaileek bizitzen dituzten tragediak ditu oinarri. Emanaldia Errota Kultur Etxean izango da, gaur, 19:00etan.

Jose Mari Andres Durangoko EAJko zinegotzia izandakoa hil da aste honetan

DURANGO | Atsekabeak eta doluak Durangoko politikagintzari eragin diote asteon. Jose Mari Andres hil da, EAJko zinegotzia izandakoa. Andres aro bitan izan zen Durangoko udalbatzako zinegotzi. 2003-2007 legegaldian lehenengo, Juan Jose Ziarrusta alkate zela, eta 2015-2019 legegaldian gero, Aitziber Irigoras agintean zela.



Jon Garaitagoitia aita-emeek irabazi dute JAEDen zozketako Renault Clio autoa

DURANGO | JAEDeko zozketa solidarioko Renault Clio autoa errepidean da dagoeneko. Irabazleek, Jon Garaitagoitia aita-eme durangarrek, eguaztenean jaso zuten kotxeko giltza elkarteko ordezkarien eskutik, Gaurisa kontzesionarioan eginiko ekitaldian.

Aurretik sekula ere ez zitzairen beste ezer egokitu JAEDen zozketan. Baina urtero erosi izan dituzte txartel batzuk. Semea konturatu zen zenbaki irabazlea, 25.296, euren zela. "Behin baino gehiagotan egiaztatu nuen, badaezpada", esan du, irribarrez.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Smurfit Kappa
Central forestal

+55 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAIINTZEN

Smurfit Kappa
Nervión

BURUARI KLIK!




LETRA ZOPA

Topatu eskolara eroan daitezkeen hamar gauza hauek letra zopa honetan.

The word search puzzle is a 15x15 grid of letters. The word 'MARTINA' is highlighted in a vertical column in the 5th column, starting from the 5th row. The letters in the grid are as follows:

B	W	T	S	U	Z	Q	Y	H	I	E	O	D	I	
K	K	O	A	D	E	R	N	O	A	R	S	I	F	
A	G	N	G	O	Q	D	V	R	H	R	Y	V	S	
L	Q	O	W	S	S	V	K	A	M	E	M	H	B	
K	E	L	G	S	M	O	W	V	A	G	P	V	O	
U	K	U	Z	I	O	Z	R	S	R	E	B	R	L	
L	K	U	Z	M	T	J	U	Y	G	L	N	C	I	
A	H	E	Z	N	X	A	J	C	O	A	J	J	G	
G	F	W	K	O	I	A	R	K	A	T	Z	A	R	
A	B	E	C	F	L	P	C	T	K	B	E	T	A	
I	Z	C	G	O	A	Q	K	R	E	J	C	A	F	
L	H	O	A	P	X	R	O	K	E	K	Q	L	O	
U	J	K	O	N	P	A	S	A	A	K	O	M	A	
A	W	G	A	L	I	B	U	R	U	A	J	A	C	


SUDOKUA



Kokatu beheko objektuak
dagokien lauki zurietan.



LABIRINTOIA



ZEIN OTE?



Zein izan da oparirik
gustukoena?
Jarraitu emandako
pistei eta jakingo duzu.

- 1.- Zinta dauka.
- 2.- Ez da hirukia
- 3.- Handia da
- 4.- Ez da laukizuzena
- 5.- Kolore bi baino ez ditu

DIFERENTZIAK

Topatu itzazu zortzi diferentziak.



HUTSUNEAK BETE

Hutsuneak bete eta zein ikasgairi buruz gabiltzan jakingo duzu.



G _ _ G R _ F _ A



_ _ S T _ R _ A



I _ G U _ _ M _ _ A



P _ A S _ _ K _



_ A T _ M _ T I _ _



G _ M N _ S _ _



K _ _ I K _



_ U S _ K _

TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu pilota hauek txikitik handira



DIFERENTZIAK

Topatu zortzi diferentziak.



Okm:

batzen gaituen distantzia

Abantailak

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

LA PERLA


- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan



anboto
kide

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea

- %15 eko deskontua saio solteetan

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik)



***Egin zaitez ANBOTOKIDE
eta baliatu abantailez!***



Bones of Minerva

KONTZERTUA **BERRIZ:: Urtarrilak 20**

Bones of Minerva talde madrildarra, Berrizen

Joan zen astetik jai giroan murgilduta daude Berrizen, eta asteburu honetarako ere hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute bertaratuko direnek. Madrilgo mendilerroan sorturiko Bones of Minerva taldeak emango du kontzertua, besteak beste. *Embers* euren azken lana aurkeztuko dute, zapatuan, Berrizko Kultur Etxean. Doluaz, aurrera egiteko borroka eta ez

egoteak sortzen duen isiltasun ozenaz berba egiten du diskoak, helmuga esperantza izan behar duen bidaia baliatuz. Kontzertua 19:00etan hasiko da. Bluek (ahotsak), Chloék (baxua), Ruthek (gitarrak) eta Nereak (bateria) osatzen dute taldea.

Bestalde, Sanantonioek Luhartz plaza taldeagaz dantzatzeko aukera ere emango dute zapatuan. Probalekuan, 18:00etan.

Urtarrilaren 19an

BERRIZ sanantonioak
Mendi erronkaren sariak, 17:00etan, Kultur Etxean.
Sagardotegi ibiltaria eta odoloste jana, 19:00etan, Olakueta plazan.
XVII. San Antonio Pilota Txapelketa. Eskuzko finalak, 19:30ean, frontoian.

DURANGO lehiaketa
Hirukoa lehiaketa, 19:30ean, Plateruena Kultur Aterpean.

IURRETA tailerra
'Alizia norbere barruan' (Onditz Mendizabal), 17:00etatik 18:30era, herri bibliotekan (sei urtetik gora)

IURRETA sancebastianak
Maiztegiko dantzariak, 17:30ean. Ondoren, **umeentzako jolasak eta tailerrak**, Bakixa auzoan.
Igel txapelketa, 19:00etan.
Mus Arin txapelketa, 19:30ean.

ZALDIBAR ipuinak
'Yogipuinak' (Maite Arrese), 17:00etan, liburutegi zaharrean.

Urtarrilaren 19tik 21era

ZALDIBAR ihes-gela
'17. logela' ihes-gela, Euskaraz Barra Barra egitasmoaren barruan. Izena eman behar da: euskarazbarrabarra.eus

Urtarrilaren 20an

BERRIZ musika
'Atxis' (Txintxeta, Klipa eta Txorroskiloa pailazoak), 12:00etan, Olakueta frontoian.
Luhartz taldea, 18:00etan, probalekuan.
Bones of Minerva, 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO bisita
'Papera ardatz' erakusketaren (Agustin Ibarrola) bisita gidatua, 11:00etan (euskaraz) eta 12:00etan (gaztelaniaz), Arte eta Historia Museoa.

DURANGO urteurrena
Karrika antzerki taldearen 25. urteurren gala.
Topaketa, 17:30ean, Santa Ana plazan.
Kalejira, 18:30ean.
Urteurren gala, 19:30ean, San Agustin Kulturgunean.
Brindisa eta luntxa.

ELORRIO kontzertua
Sei Segá + Ezta Ilen, 22:00etan, Ateneoan.

IURRETA sancebastianak
Meza, 12:00etan.
Herri kirol erakustaldia: Urdax Magunazelaia eta Karmele Gisasola Zelai III, Ioritz Gisasola Zelai IV eta Jon Gisasola Zelai V, 13:00etan.
Herri bazkaria, 14:30ean.
'Gora bihotzak!' (Antxo eta Pantxa), 17:00etan.
Tortilla txapelketa, 20:30ean.

DJ Txululu, 22:30ean.
Bakixako Danborrada, gauerdian.

ZORNOTZA antzerkia
'Shalott' (Guillem Batlle i Vlad Ion konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoa.

Urtarrilaren 21ean

BERRIZ sanantonioak
Eskualdeko Barazkien eta Fruituen XLII. Erakusketa, 11:00etan, probalekuan.
Baserriko txerri-burualde dastatzea, 12:00etan, Olakueta plazan.
Meza, 12:30ean, Antonio Deunaren baselizan.
Iremiñe eta San Lorentzo dantza taldeen saioa.
Urban dance: Feeling the vibes, 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia
'Andereño' (Anita Maravillas), 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

IURRETA sancebastianak
Iurretako Mikel Deuna dantza taldea, 12:00etan.
Bazkari herrikoia, 14:30ean. Mirarik, Izarrak, Gorkak eta Mikelek alaituta kantu giroan.
Dantzaldia.
Suziriak jaiak agurtzeko.

Urtarrilaren 22an

BERRIZ sanantonioak
Barrakak merkeago, 17:00etatik 19:00etara.
Nekazaritza olinpiadak, 19:00etan, Olakueta frontoian.

Ikuskizuna, txorizo ogitartekoak eta edaria.

Urtarrilaren 23an

IURRETA dokumentala
'Carros de Foc', 19:00etan, Goiuria kulturgunean.
Berbaldia: Eñaut Airtzaguen

Urtarrilaren 24an

ABADIÑO ipuinak
Bego Alabazan ipuin kontalaria, 17:00etan, Mediatekan (4-8 urte).

IURRETA dokumentala
'The Great, the basque hand you', 19:00etan, Goiuria kulturgunean.
Berbaldia: Mikel Bringas.

Urtarrilaren 25ean

IURRETA dokumentala
'Zanskar 2023', 19:00etan, Goiuria kulturgunean.
Berbaldia: Joseba Iztueta.

Urtarrilaren 26an

ELORRIO antzerkia
'Familia sarekada' (Vaiven), 20:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA ipuinak
'Poco docentes' helduentzako ipuin kontaketa, (Nestor Bolaños, Kanaria Handia), 19:00etan, herri bibliotekan.

Zinema

:: Abadiño
ERROTA KULTUR ETXEA

• **Bidasoa. 20178-2023**
barikua 19: 19:00

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA

• **El correo**
barikua 19: 18:30 / 21:00
zapateria 20: 16:45 / 19:15 / 21:30
domeka 21: 17:00 / 19:30
astelehena 22: 18:00 / 20:15
martitzena 23: 18:00 / 20:15
eguzatena 24: 19:00

• **La zona de interés**
barikua 19: 18:30 / 21:00
zapateria 20: 19:15 / 21:30
domeka 21: 19:30
astelehena 22: 18:00 / 20:15
martitzena 23: 18:00 / 20:15
eguzatena 24: 19:00

• **Cualquiera menos tú**
barikua 19: 18:30 / 21:00
zapateria 20: 16:45 / 19:15 / 21:30
domeka 21: 17:00 / 19:30
astelehena 22: 18:00 / 20:15
martitzena 23: 18:00 / 20:15
eguzatena 24: 19:00

• **El chico y la garza**
zapateria 20: 16:45
domeka 21: 17:00

:: Elorrio
ARRIOLA ANTZOKIA

• **La memoria infinita**
zapateria 20: 20:00
domeka 21: 20:00
astelehena 22: 20:00

• **Doraemon: Nobitaren dinosauro berria**
domeka 21: 17:00

:: Zornotza
ZORNOTZA ARETOA

• **El peor equipo del mundo**
barikua 19: 20:00
domeka 21: 20:00
astelehena 22: 20:15

• **Kina y Yuk**
domeka 21: 17:00

• **Fallen eaves (JBGA)**
martitzena 23: 20:15

• **En nombre de la tierra**
eguzatena 25: 20:15

Ostalaritza gida


DURANGO

BASA Eroateko janaria



Untzillatx, 9
Tel.: 747 421 104

Hemengo eta kanpoko platerak, kalitatezko eta gertuko produktuez prestatuak. Eguneko menua eta karta. Etorri ta eroan!

 @basa.durango



DURANGO

IBAIZABAL



Ibaizabal taldea, 2B
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak. Ostiraletan pintxopotea!

IURRETA

GAUARGI



Dantzari, 4 behea
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

 @gauargitaberna

ZORNOTZA

XIBERU



Zeilia Gallartzagaitia, 9
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 Xiberu Taberna
 @xiberutaberna





Vlad Ion
Dantzaria
ZORNOTZA | 1994

“Zornotzako emanaldia zirkulu bat zarratzea izango da; kalean dantzan ikusi nautenek ikasi dudana ikusiko dute”

Vlad Ion zornotzarrak herrikideen aurrean estreinatuko du gaur 'Shalott', Zornotza aretoan, 20:00etan; Guillem Batlle gaz batera egingo du dantza garaikide emanaldia, eta, besteak beste, denboraren joana islatuko dute

DANTZA • ARITZ MALDONADO

Vlad Ion zornotzarra hamahiru urte-gaz hasi zen dantzan, Andramaria plazaren alboko skate parkearen inguruan. Orduak igarotzen zitu en parkean dantzan. "Nire lagunik onenarekin eman nituen lehengo pausoak. Gero, bere lehengusuak breakdance egiten zuen eta irakatsi egin zigun; orduan maitemindu nintzen dantzaz", adierazi du dantzariak. Urte batzuk bere kabuz ikasten egon eta gero, Marijose Bayon gurutzatu zen dantzariaren bidean. "Beste mundu bateko ateak parez pare zabaldu zizkidan", gaineratu du. Bestel dantza mota batzuk erakustez gainera, eszenan zelan egon, eta dantza bera modu profesionalago batean

ulertzen lagundu ziola azpimarratu du; lehiaketetan ere aritu ziren, gainera. "Nik dantza urbanoak baino ez nituen jorratzen, hip-hop, housea, poppinga, breakinga... Lehiaketei eskerrak Natalia Garcia Muro ezagutu nuen, eta beragaz dantza garaikidea. Niretzat mundu berri bat zen hori, hasieratik liluratu ninduen", esan du. Ondoren, Bartzelonara joan zen trebatzera, Varium eta Fre3 Bodies eskoletara. Egun, dantza irakaslea ere bada, eta, besteak beste, Ziomara Hormaetxe, Nadine Gerspacher eta Clémentine Télésfort dantzariekin lan egin du. Vlad Ion pozik dago, skate park inguru horietan ikasten hasi zena herrikideen aurrean erakutsi ahal izango baitu

gaur, barikua, Zornotza Aretoan, Shalott-en estreinaldiagaz. Guillem Batlle gaz batera sortu du pieza, Camille Hinsingerren laguntzagaz eta Miguel Marin Pavonen musikagaz. "Zirkulu bat zarratzearen modukoa izango da", argitu du Ionnek.

Interpretatzaile profesional legez Zornotzan dantza egingo duzun lehenengo aldia duzu. Gogotsu zaude?

Bai. Niretzat amets bat betetzea da etxera bueltatu eta nire ibilbidean zehar ikasi dudana jendeari erakutsi ahal izatea. Ni parkean, kalean, dantzan ikusi nautenei ikasi dudana guztia erakustea zirkulu bat zarratzearen modukoa izango da. Ia ilusio handiagoa egiten dit ezagun ditudan horien aurrean hori partekatzea, antzoki erraldoi batean dantza egitea baino. Esango nuke konexioa benetakoagoa dela horrela.

Imajinatzen zenuen honaino helduko zinela?

Ez. Baina imajinatzen nuena ere asko aldatu da. Pentsa, ni breaking-agaz hasi nintzen, dantza urbanoagaz, dantza garaikideagaz alderatuta guztiz desberdina den mundu batean. Desberdinak dira, errotik; kalekoagoa da bata, eta eskolakoagoa bestea, maitasunez diot, burgestxoagoa. Mundu bi horiek nigan batu dira, eta horri eskerrak gauza gehiago egin ahal izan dut. Ez dakit zein dudana gustukoago, baina nigan alde sortzaile hori mantendu ahal izan dut horri eskerrak. Errutinatik irten eta edozer egiteko aukera izan gura dut, eta dantzak horixe ematen dit.

Afizioa ofizio duzu orain. Beldur zara errutina bihurtu daitekeelako? Errutinak ez nau beldurtzen. Hain zuzen ere, artistarik gehienek legez, egonkortasuna da bila-

tzen dudana kontuetariko bat. Baina errutinari beldurrik ez. Hasteko, dibertsitate handia dagoelako gure mundu honetan; lan egiten duzun proiektu bakoitza desberdina da, taldea berria delako, edo koreografoa berria delako, adibidez. Gehiago gertatzen zait nire dantzaz maiteminduta jarraitzeari eustea; hau da, zerbait berria aurkitu eta gero, monotono ez bilakatzea. Nire ustez, hori gorputzari entzuteko tarterik hartzen ez dugulako gertatzen da. Gaur egun, bizimodua lan mundura begira dago, asko ekoitzi behar da; niretzat etxera bueltatzea reset egitea da, gorputzari entzuteko tarte hartzen dudalako. Monotonia horretara heldu naiteke, baina dantzaz nekatzera ez. Klaseak eman ditudanean ere, jendea dantzan ikuste hutsagaz gozatu egiten dut; egunetan egon naiteke dantzariari begira.

Gaur egun bizimodua lan mundura begira dago, asko ekoitzi behar da; niretzat etxera bueltatzea reset egitea da, gorputzari entzuteko tarte hartzen dudalako

Artista askok Madril edo Bartzelona aldera jo dute formakuntza jasotzera edo lan bila. Ikusten duzu aukera ibilbide hori hemen egiteko? Bueltatuko zara?

Pertsonalki, hemengo jendeagaz konektatzeko beharria dut, eta uste dut, gainera, hemen ere aldaketa bat gertatzen ari dela; adibide legez, Natalia Garcia Muro eta Matxalen Bilbao formakuntza saio bat ematen dabilta, edo badago beste espazio bat, Mutis, sortzaileen topagune dena. Ni oraindik ez naiz egon, baina badakit ideia asko sortuko direna bertan. Dantza urbanoetan ere aldaketa hori izaten ari da; belaunaldi berriak indartsu datoz, serio hartu dute, eta zarata asko egiten dabilta. Apurka hazten joango da, eta ni neu ere ahaleginduko naiz nire ekarpena egiten.

Bestalde, nik asko gozatzen dut Bartzelonaren alde kulturala, baina, ez dakit zelan esan, bizimodu aldetik beste gauza bat da. Zu eta zure sorkuntza harmonian ikusi gura badituzu, hemen beste mota bateko energia dago; are gehiago, kultura arloan ere, Bartzelonan ez dauden beste kontu interesgarri batzuk daude hemen. Niretzat horixe da interesgarriena, jendeak partekatzeo gauzak edukitzea, eta hori han zein hemen dago.

Karrika antzerki taldeak ekitaldi berezia antolatu du 25 urteko ibilbidea ospatzeko

Karrikak zapatuan egingo du 25. urteurren ekitaldia, hilak 20, 19:30ean, Durangoko San Agustin kulturgunean

ANTZERKIA • A. M.

Karrika antzerki talde durangorak 25. urteurren ospakizun ekitaldiekin jarraitzen du. Urrian Durangoko txosnaguneko txupina jaurti zuten, eta azaroan Gaba Baltzan parte hartu zuten. Zilarrezko ezteiak borobiltzeko, urteurren gala egingo dute bihar, zapatua, 19:30ean, San Agustin kulturgunean. Aurretik, 17:30ean, Santa Ana plazan batuko dira. Urteotan, San Agustin kulturgunegaz hartu-eman estua izan du Karrikak, eta horregaitik egingo dute bertan ekitaldia, kalea ahaztu barik. Horrez gainera, galara zilar koloreko zerbait eroateko deia egin dute antzerki taldeko kideek.

Karrika 1998an sortu zen, Durangoko Frai Juan Zumarragako institutuko proiektu batetik. Euskal Antzerkigintzak zuen hutsuneetariko bat betetzeko helburuagaz ekin zioten bideari. "Gazteen sormena bultzatzea, ikuskizunak euskaraz sortu eta plazaratzea, lan prozesua talde lanean oinarritzea eta irudia eta soinua plastikaren mesedetan erabiltzea ziren

gure proiektua oinarritzen zuten zutabeak", azaldu du Maite Lopez Karrikako kideak. Sortu eta gutxira, Jose Martin Urrutia 'Txotxe' elgoibartarra eta Elena Fernandez batu ziren proiektura. Urrutia 2018an hil zen, gaixotasun baten ondorioz, hain zuzen ere, Eneko Sagardoy Karrikako kideak Goya saria irabazi zuen sasoi berean. Urteotan, kideen joan-etorri handia izan du Karrikak, eta gaur egun zortzi lagun dabilta taldean, baina azpimarratu du ehun lagunetik gora igaro direla bertatik. "Karrikaren ibilbide luze honek eta eskola bokazioak kide batzuek afiziotik ofizioa bilatzeko nahia piztea lortu dute", gehitu du Lopezek.

Karrikak dozenaka lan sortu ditu urteotan. Lehenengoa 1998an bertan, *Fartsa*. Hamarkada bi eta erdi honetan zehar, estilo propioa garatu dute; 2007an, Durangoko bonbardaketaren 70. urteurrena zela baliatuta, San Agustin kulturgunek eta Karrikak euren elkarlana eta konpromisoa indartu, eta *Martxoak 31* obra sortu zuten.



Goian, 'Fartsa' antzezlan. Behean, 'Deshakespearizazioa' obrako irudia.

Gai librean

2024 bat

2024. bat. Bat, 2024 bat kontatzeko. Urtea hasi bezain pronto, musikagintzan agurrak eta "aspaldiko!"-ak ezagutu ditugu, input larregi ez ote daramatzagun 19 egunetarako. Taldekako kirol askotan erabiltzen den adierazpide bat da "sartzeko, lehenbizi ateratzen utzi behar duzu", talde batean ez baitago gura besterentzat lekua. Ordea, sorkuntzan, eta batez ere euskal sorkuntzan, sartzen den oro da ongi etorria, eta agurtzen duguna penagaz agurtzen ohi dugu (badaude salbuespenak dena dela).

Agurtu ditugu Betagarriko kideak. 30 urte beteko dituzten urtean astindu dituzte azkeneko biderrez sokak, tronpetak eta bateria. Joan zen zapatuan Bilboko Kafe Antzokian egoteko aukera izan nuen, eta Igor umea berpiztu



Igor Galarza Intxausti
Kazetaria

zen. "Zure ingurua" abesti gogokoena legez zeukana, "Txikia" goizero itzartzeko alarma legez zeukana. Iraganera salto egitea badakit zer den orain (zahartzen nabilenaren beste seinale bat). Gogoangarria izan zen talde gasteztarrak ikus-entzuleoi eskaini zigan agurra.

Bestalde, Willis Drummondoko kideak ere agurtu ditugu. Aipatzekoak dira Jurgi Ekiza abeslariak Kazetarako egindako elkarrizketan esandakoak: "Diskurtso politikoa eta nazio diskurtsoa asko desagertu dira musikatik"; Talde askok erdi euskaraz eta erdi erdaraz egiten dute, esanez 'hau da nire errealitatea'. Hala, Willis Drummondok ere 10 kantatik 9 frantsesez egingo lituzke. Pentsatzen badugu musikan soilik gure errealitatearen isla izateko, azken finean, desagertuko gara". Ekizak esandakoak erabat partekatzen ditut.

Joango da Gora Etorri. Agurra iragarri du Durangaldeko taldeak, eskualdeko musikarentzat beste lore bat zimeldu da. Autotunea eta ondo kantatzea uztartu dituen talde bakanetakoa. Eskerririk asko desfasea eragiteagatik!

Baina txanponak, edo biniloak kasu honetan, badu bere B alde bat pozgarria dena. Euskal Herriko 'gentleman' batek sorpresa eman zigan domekatik astelehenerako gauean. Disko bat, besterik ez. Gitarra bat, baxu bat, bateria bat, ahots bat. Besterik ez. Gorka Urbizuren beharra genuen, eta zelakoa gainera. Gentleman bati buruz berba egin badut, zer esan euskal 'gentlewoman'-ari buruz. Anarrik disko berria kaleratuko duela iragarri zuen, desiratzen nago bere lan berria entzuteko, erraietara begira jartzeko edota barrutik guztiak kanporatzeko. 2024 bat, sorkuntza urte bat baino gehiago.



**Aritz Azkorbebeitia
Alberdi**

Mendi lasterketak

ABADIÑO | 1979

“Gaur egun ikusten diren praktika batzuek ez dute zerikusirik mendiagazko maitasunagaz”

Mendi lasterketen nahiz korrikalarien kopurua hazten joan den neurrian, aldatu egin da mundu hori ulertzeko modua, eta, sarritan, kirol ikuspegi soilak gaina hartu die bestelako balioei: gizatasuna, ingurumenaren babesa... Etiketa Berdea egoera horri buelta emateko ahalegina da

KORRIKA • JOSEBA DERTEANO

"Era etiko batean mendia zaintzeko eta maitatzeko praktika onen dekalogo". Horrela definitzen du Aritz Azkorbebeitiak Etiketa Berdea ekimenaren muina. Azkorbebeitia Ubideko mendi lasterketako antolatzaileetarikoa bat da eta gaur egun Etiketa Berdea ekimena sustatzen ere badabil abadiñarra. Azken batean, Etiketa Berdera batzen direnek balio jakin batzuk sustatzeko konpromisoa hartzen dute: ingurumena babestea, gizatasuna eta berdintasuna bultzatzea... Beste modu batera esanda, mendi lasterketak balio komun batzuen barruan batzen dituen aterkia da.

Zelan sortu da Etiketa Berdea?

Bere sasoiaren, Zeanuriko Gotzon


Idirin hasi zen kontua mugitzen. Bere ekimena izan da gehienbat. Orain urte bi, Ubideko mendi lasterketa sortzen hasi ginenean, Idirini laguntasuna eskatu genion, ez genuelako esperientzia handirik horrelako kontuetan. Ordurako bazuen buruan praktika onei buruzko dekalogo edo antzerako zeozer ateratzea. Behin dekalogo eginda, sare sozialetan-eta zabalitzen hasi ginen. Gaur egun, 40 lasterketak bat egin dute Etiketa Berdeagaz, tartean Sorginen Lasterketak. Kataluniako lasterketa batzuk ere sartu dira. Dekalogo ez da mugiezina. Denboragaz ikasten gabiltza, eztabaida aberasgarriak ditugu hainbat punturen inguruan.

Zelan definituko zenuke Etiketa Berdea berba gutxitan?

Era etiko batean mendia zaintzeko eta maitatzeko praktika onen dekalogo da. Azken batean, praktika zentzudunak dira.

Dekalogo hiru bloketan banatzen da batez ere. Lehenengoa jasangarritasunari dagokio, natura zaintzeari eta ahalik eta urrats ekologiko txikiena uzteari.

Sasoi batean, mendiagaz hartu-emanen zutenek parte hartzen zuten lasterketetan. Denboragaz hori aldatu egin da. Beste eremu batzuetatik ere badoa jendea. Ahalik eta denborarik onena egitea izaten dute helburu nagusi. Lehiakortasun maila igo egin da eta horrek bere alde onak eta



txarrak ditu. Esaterako, ingurumenaren ikuspegitik: lasterketa batean nago, gela jaten dut, plastikoa lurrera botatzen dut eta jasoko du baten batek. Beste batek jaso zein ez, dena ez da libre. Jarrera horiek hobetzeko irizpideak jasotzen dira dekalogoan.

Dekalogoko beste bloke bat elkartasunari eta gizatasunari buruzkoa da. Balioak deshumanizatu egin direla diozue.

Alde horretatik, elkartasuna eta gizatasuna zaintzeko Etiketa Berdean proposatzen diren puntuak garrantzitsuak direla uste dut. Egon dira kasuak, esaterako, korrikalari bat jausi, min handia hartu, eta atzetik datorrenak jaramonik ere ez egitea eta besterik barik aurrera egitea. Gaur egun ikusten diren praktika batzuek ez dute zerikusirik ezagutu izan dugunagaz eta mendiagazko maitasunagaz.

Lasterketen gehienezko parte hartzaile kopuruaren edo ordainpeko korrikalariak ekartzearen gaineko irizpideak ere jasotzen dituzue.

Mendi lasterketa garrantzitsuago bihurtzeko, joera dago korrikalari ezagunak edo ondo dabilzanak ordainduta ekartzeko. Zentzuna aplikatuz jokatu daiteke. Ondo dabilen Jakako korrikalari bat ekarri gura baduzu, normala da hari gasolina eta horrelako gastuak ordaintzea, baina ez dugu uste lasterketan bertan parte hartzearen ordaindu behar zaionik. Hori eginda, korrikalari horri tratu berezia ematen diozu, besteen gainetik ipintzen duzu. Baina, tira, lasterketa mota asko dago, ulertzen dugu hori, eta bakoitzak bere modura ikusiko du.

Parte hartzaileen kopurua ere garrantzi handiko kontua da. Lasterketa batzuk parke naturalan izaten dira. Edozelan ere,

parke naturalatik igaro zein ez, lasterketa batek muga bat izan behar du kopuruari dagokionez, jasangarria izan dadin. Bestalde, ikusleen kokapena ere inportantea da. Jasangarritasunaren ikuspegitik, toki batzuk beste batzuk baino aproposagoak dira korrikalariak animatzera joateko. Puntu batean 200 korrikalari eta 800 ikusle batzen badira, biak zen-

“Egon dira kasuak, esaterako, korrikalari bat jausi, min handia hartu, eta atzetik datorrenak jaramonik ere ez egitea eta besterik barik aurrera egitea”

batu behar dira: guztira, 1.000 lagun daude. Ikusleek ere berdin zikindu dezakete ingurua, gura barik bada ere.

Hirugarren blokea berdintasunari dagokio.

Puntu interesgarria hau ere. Esaterako, sexu-identitatearen arloan berdintasunerako bidean aurrerapausoak ematea aholkatzen da. Esaterako, Ubideko mendi lasterketarako, izena emateko webgunean 'ez-binario' aukera ere gehitzeko eskatu genien, eta halantxik egin zuten. Euskal Herrian hori eskatzen lehenengoak edo lehenengotarikoak ginela esan ziguten. Gero ez zen inor apuntatu, baina aukera hori zegoen. Hemen ere eztabaidatu daitekeen puntu asko dago, jakina. Baina gaia mahai gainean ipintzea inportantea da. Denboragaz joango gara galderari erantzuten.

Mallabiko bidezidorretan zehar, Zazpi Pago mendi lasterketa berriak herriko paisaia naturalak bistaratuko ditu, maiatzaren 18an

Ibilbidea diseinatzerako orduan, posible zuten guztietan pistak baztertzen eta herriko bidezidorrak lehenesten ahalegindu dira antolatzaileak



Zengotitagantetik igaroko da lasterketa.

MALLABIA • J.D.

Mallabiak mendi lasterketa izango du aurten: Zazpi Pago mendi lasterketa. Izen bereko elkartek antolatuko du, lehenengoz, maiatzaren 18rako. Ibilbide bi egongo dira aukeran: 25 kilometroko eta 16 kilometroko bana, 1.400 eta 750 metroko desnibel positibokoak,

hurrenez hurren. Izen ematea dagoeneko martxan da, Kronoak plataforman.

Ibilbidea antolatzerakoan, ahalik eta pistarik gutxien sartzen ahalegindu dira. "Horretxek egiten du diferente Zazpi Pago mendi lasterketa. Ahal izan dugun denetan pistak saihesten eta bidezidorrak

bilatzen eta garbitzen ahalegindu gara, gero jendeak bertatik ibiltzeko aukera izan dezan. Esaterako, Arietzu tontorretik beherantz, Mallabira heldu arteko azken hiru kilometroak erreka kontrako bidezka batetik dira. Oso inguru polita da eta ez da askorik ezagutzen", adierazi du Zazpi Pago elkarteko

Xabat Uzuriagak. Horrela, herriko paisaia naturalak ezagutaraztea ere bada lasterketaren helburua. Lasterketaren beste helburu bi herrian jai giroa sortzea—egun osoko egitaraua prestatzen dabilta— eta herriko ekoizleen produktuak ezagutaraztea dira. Sariei dagokienez, herriko produktuekin baturiko

otzarak banatuko dituzte, eta horridura puntuetako elikagaiak ere herriko denda txikietan erosita-koak izango dira.

Ibilbideak

Proba biak Mallabiko plazan hasiko dira eta bide bera egingo dute Areitio eta Zengotita ingururaino. Orduan, luzea Trabakurantz jaitziko da, udalak Gerean dauden ur-jauzietara joateko berriztu duen bidetik. Handik, boluntarioek beren-beregi lasterketarako zabaldu

Mendi lasterketaren harira, probako antolatzaileak egun osoko egitaraua prestatzen dabilta

duen bidezidorretik Zazpi Pago lez ezagutzen den ingurura helduko dira korrikalariak, eta Oizerantz hartuko dute. Bestalde, lasterketa laburra Arietzuko gailurreriatik igaroko da, besteak beste. Orokorrean, mendiko pistetan erritmo bizian ibiltzera ohituta dauden korrikalarientzat baino gehiago, bide estuago eta aldapatsuagoetan trebeak direnentzat da aproposagoa ibilbidea.

Jokaldia

Aupa, neskak!

Normalean, korrika egitera bada, mendira bakarrik joan zalea naiz, txakurrak lagun hartuta. Lagun artean ere gustura, jakina, baina ohituago nago bakarrik. Eta oinez joateko bada, gurago dut familian, bakarrik baino.

Aurreko zapatuan beste familia handi eta eder batez egin nuen korrika, Azpeitiko parajeetan, Izarraitz mendilerroan, Domusa Teknik 40 MLK eta 15 MLK lasterketetako antolatzaileek gonbidatuta. Emakumeei zuzenduriko entrenamendu saioa zen, 16 bat kilometrokoa, eta harritura geratu nintzen zenbat emakume batu ginen. 70 inguru! Ni-gaz egindako saioaren aurretik, beste bi ere egin zituzten aste batzuk lehenago: Malen Osa oñatiarragaz lehenengoa, eta Ainara Urrutia aretxabaletarragaz bigarrena. Laugarren eta bosgarren bat ere



Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendi lasterketak

Emakumeei zuzenduriko entrenamendu saioa zen eta harritura geratu nintzen zenbat emakume batu ginen

Apurka-apurka geroago eta emakume gehiago ikusten dugu kirola egiten. Jarrai dezagun horrela

egingo dituzte. Ekimeneko arduradunetarikoa batek esan zidan urte batzuk barru 15 MLK lasterketako korrikalarien erdiak emakumeak izatea dutela helburu. Benetan poztekoa litzateke!

Ekimen ederrak dira emakumeak mendian korrika egitera animatzeko zein beste edozein kiroletan bultza-

datxo bat emateko. Apurka-apurka geroago eta emakume gehiago ikusten dugu kirola egiten, bai errepidean bizikletan, bai asfaltoan korrika, mendian, saskibaloian, futbole... Jarrai dezagun horrela! Jarrai dezagun Durangoko Emakumeen Lasterketa egiten azaroaren 25ean, Lilakrosa Martxoaren 8aren bueltan, eta beste hainbat proba gehiago Durangaldeko eta Euskal Herriko txoko-bazter guztietan.

Horretarako, ume-umetatik hasia ere garrantzitsua da. Sasoi batean, arrazoi bategatik edo besteagaitik, emakume askok ez zeukaten aukerarik kirola egiteko. Ezta eskubiderik ere! Gaur egun neskatilek badute aukera, baina, hala ere, kirol askotan mutikoen kopurua askoz ere handiagoa da. Xakea da adibideetariko bat, eta pena da. Baina seguru nago xakean ere egingo dugula bidea.



Argazki erakusketa

lurretako Oreka tabernan inauterietako argazki erakusketa dago ikusgai. Ezagutzen al duzu inor? Jon Irazabalek 1991n eta 1992an lurretan ateratako irudiak dira. Inauteriak ate joka ditugula kontuan hartuta, ideak hartzen joateko aukera ona izan daiteke. Izan ere, lurretan badakite mozorroak behar den moduan prestatzen.



Gremioen gida



Zurgintza

leike Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leike.eus

Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Zurgintza

ATERPE ARBOTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak guztioi!

GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Intza eta Irati (963. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozategia
gozatugozotegia



Zorionak, gure printzesa! 7 urte jada! Bizipoz horrekin jarrai dezazun espero dugu. Maite zaitugu. Danel, aita eta amaren partez.



Zorionak, **Xuban eta Katrin!** Askio maitte zaituegu etxeko denok! Mosu eta besarkada potolo-potolo bana!



Zorionak, amaxto!



Zorionak, **Martxel!** 20an 5 urte egingo dituzu. Oso ondo pasa eta segi horrela! Maite zaitugu!

Eskelak eta oroigarriak



LAN-ESKAITZA

Durango eta Arrasaterako Kiromasajista behar da.

Lanpostuaren ezaugarriak:

Durango masaje-zentroan lanerako kiromasajista behar da, Arrasateko masaje-zentrorra astean behin edo birritan joateko prest dagoena.

Eskatzen da:

Kirol Kiromasajista edota Kiromasajeko Teknikari Espezialista titulua. Osteopatia titulua izatea.

Baloratuko da:

Drenatze linfatikoan, erreflexologian edota naturopatiako beste arlo batzuetan jakintza izatea.

Euskaraz ondo jakitea.

Eskaintzen den lanaldiaren baldintzak:

Lan jarduna: 20 ordu astean, lanaldi orduak gehitzeko aukerarekin.

Curriculumak helbide honetara bidali; goizaneam@gmail.com

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Liburu aurkezpena

'Post mortem sonata'

Manu Ertzilla eta Xabier Auzmendik aurkeztuta



Urtarrilak 16, 19:00-tan, Durangoko Hitz liburu-dendan. *Doan

Botikak

BARIKUA, 19 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,
MURUETATORRE 2C - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 20 · 09:00-09:00

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-13:30

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 21 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 22 · 09:00-09:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 23 · 09:00-09:00

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 24 09:00-09:00

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUENA, 25 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

"Bakixan ez dugu Donostiako danborradaren inbidiarik"

Aurten 10. aldia izango duen Bakixako danborradaren sortzaileetariko bat da Jabi Intxausti. Donostiako danborradaren azken erretretagaz batera hasiko da danborrada, aurten, Bakixan



Jabi Intxausti Duñabeitia

Bakixako Danborrako kidea

IURRETA | 1967

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Donostiako danborradagaz batera entzun zen lehenengoz Bakixako daborrada, 2013an. Aurten, azken erretretan bat egingo dute Donostiako eta Bakixako daborradek. Bertan izango da Jabi Intxausti, faltarik barrik. Ia 30 urte dira Lemoan bizi dela, baina Bakixako San Sebastian jaiak ezinbesteko hitzordua ditu. Euriaren edo hotzaren beldurrik barrik bertartzeko gonbita egin du Intxaustik. "Jai giro polita sortzen da", nabarmendu du.

Bakixako danborradaren sortzaileetariko bat zara. Zelan izan zen?

Aurretik ere banuen buruan bueltaka, baina justu urte hartan, 2013an, domeka jausi zen San Sebastian. "Ba, zergaitik ez dugu danborrada egiten zapatu gauerdian?", bota nuen. Julian Bilbaok ere ondo ikusi zuen eta segituan ekin genion dena mugitzeari. 30 bat lagun elkartu ginen eta ekimenak arrakasta handia izan zuen. Orditik eutsi egin diogu, pandemia garaian izan ezik. Hainbeste urtean egin eta gero, aurrera jarraituko duela esango nuke.

Sebastian bat bada zeruan, Bakixa bat bakarra da munduan?

Bai (barrez). Bertakoa izanda zer esango dizut, ba! Jai giro berezia sortzen da, ez dut uste Iurretako beste kofradiek dutenik. Nik horrela bizi dut, neguan ospatzeak trabak sortzen baditu ere. Ikuspegia ere zoragarria da, Durangalde osoa ikusten da.

Baduzue Donostiakoaren inbidiarik?

Santua kendu digute! Eta Donostian ospatzen badute, zergaitik ez dugu, ba, guk ere egingo! Bizkaian ez dut uste beste inon egiten denik, baina halantxik tokatu zaigu santua eta. Baina inbidiarik ez. Izatekotan, inbidia sana. Laster Donostiara ez, Bakixara etorriko da

telebista ere, seguru! Danborrada txikia baina polita da gurea.

Angulak ala gulak, zein da menua?

Guk ez daukagu hainbeste diru, ez gara hiriburukoak. Batzuek izan dute San Sebastian egunean angulak jateko ohitura, oraintsu arte. Baina jaien barruan ez, ez dugu horrelako menurik izan. Baba-jana egoten zen garai batean, zapatuan. San Sebastian egunean herri bazkaria izaten dugu, eta aurten tortilla txapelketa ere antolatu dugu iluntzerako. Baliteke horixe izatea askoren afaria San Sebastian egunean.

Danborradan 30 bat lagun batzen gara, normalean. Nagusienak 80 bat urte izango ditu, eta gazteenak zortzi baino gutxiago

Zenbat lagun batzen zarete?

Normalean 30 bat lagun, inoiz 45 inguru ere elkartu garen arren. Nagusienak 80 bat urte izango ditu, eta gazteenak zortzi baino gutxiago. *San Sebastian Martxa, Diana, Erretreta, Iriyadana, Au dek Au* eta *Gau Ibilera* jotzen ditugu, eta lehenengo entsegu eta prestatetekin hile bi lehenago hasten gara.

Aurtengoa 10. danborrada izango da. Modu berezian ospatuko duzue?

Ez, pandemian izandako etenaren ondoren apur bat galduta ere ibili gara eta. Igual 15.a ospatuko dugu. Egongo dira aukera gehiago.

Ikusi duzu aldaketarik urteotan?

Jendearen aurpegietan ikusi dut aldaketa (barrez). Umeak zirenak nagusitu egin dira. Batzuek utzi egin dute, baina beste batzuek pozik jarraitzen dute. Pozik eta gogotsu etorri ezean ez du mezezi... Askok kanpoan bizi gara, baina etortzen gara jaietara.

Luhartzeko batera-jotzailea izan zara. Lagundu dizu horrek danborra jotzen?

Bai. Dena dela, badira 24 bat urte utzi nuela. Inoiz Luhartz etorri denean, jo izan dut, baina...

Lauhortza

Mertxe Mujika
Balanzategi
AEK



Bizkarsoro

Orain dela gutxi estreinatu da Josu Martinez zinemagileak zuzendutako Bizkarsoro filma. Aurreko asteburuan ikusteko aukera izan nuen, eta iruditu zitzaidan euskaldunon historia ezagutzeko pelikula gogorra bezain polita eta hunkigarria. Asmatu herri batean kokatu du istorioa Martinezek, nahiz benetako gertakariak dituen oinarri. Bost istoriotan zehar, hainbat belaunalditan eman zen aldaketa nabarmen ageri da: 80 urtetan euskaldun elebarrak nagusi izatetik, gutxiengo izatera pasatu ziren. Aldaketa ez da berez ematen, baizik eta erabaki administratibo eta politiko batzuen ondorioz.

2024. urtera salto eginda, nekagarria eta etsigarria da ikustea euskaldunon eskubideak behin eta berriro zapaltzen direla. Batean, epaile batek ebazten du Donostian udaltzain izateko ez dela euskara jakin behar. Hurrengo batean, Beskoitzeko Herriko Etxearen erabakiz, bertako ikastolak datorren uztailetik aurrera ezin izango du klaserik eman egungo lokaletan. Mende berrian egonagatik, erabaki administratibo eta politiko batzuek tarteko, euskaldunon eskubideen urraketek ez dute etenik.


Martinen pelikulan erakusten da euskararen zapalkuntzari aurre egiteko tresnak egon badaudela. Sarritan euskaldunok pentsatu ohi dugu handien kontra ez dagoela borrokatzerik eta asimilazioa onartu egin dugu. Egoera aldatzeko, euskarak urteetan jasan dituenak kontatu eta ezagutarazi egin behar dira. Euskararen alde lanean jarraitzeko nondik gatozen jakitea beharrezkoa da. Hortaz, ez galdu Bizkarsoro ikusteko aukera.



SAN ROKE BARRIA

**ETXEBIZITZA AUKERA ZABALA
3 LOGELA
295.000€ -TIK +BEZ**

ERAIKUNTZA LANAK HASITA



Salmenta bulegoa
Astxiki kalea 1, Durango

946 462 041
www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa